

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Europako Batzordeak, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Gizarteratze Sarearen Jardunbide Egokiak Trukatze I. Jardunaldia antolatu dute

Saioa bihar eta etzi egingo da, azaroak 22 eta 23, enplegu eta gizarte zerbitzuak batera ematen dituen nafar eredu berria baloratzeko

Asteazkena, 2018.eko azaroak 21

Europako Batzordeak, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Jardunbide Egokiak Trukatze I. Jardunaldia antolatu dute Gizarteratze Sarearen laguntzaz, “enplegu eta gizarte zerbitzuak batera ematen dituen nafar eredu berria baloratzeko”. Jardunaldia bihar, osteguna, azaroak 22 eta ostirala, azaroak 23an egingen da, Iruñeko Civicanen.

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioko Familientzako eta Haurrentzako Zerbitzuen zuzendari nagusi Ángel Parreñok eta Europako Batzordearen ordezkari Alina Seciuk irekiko duten jardunaldi honen barruan, “Prestación Integrada de Servicios Sociales dirigida a la Activación de Perceptores de Ingresos Mínimos: itinerarios de reformas” izenburuko ikerlana aurkeztuko du Nicola Düll egilekideak, Europako Batzordeak gizarte nahi enplegu zerbitzuen mesedeko aldatetarako egiteko proposatu dituen gomendioak bilduz.

Ehun bat pertsonak parte hartuko dute lehendabiziko saio ireki honetan, eta 50 inguruk sakonago lan egingen dute, han-hemenka abian diren baterako prestazioen arloko esperientziei buruz elkarren artean ikasteko asmoz. Bertaratutakoek zortzi autonomia-erkidego (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Gaztela eta Leon, Extremadura, Madril, Murtziako Eskualdea eta Valentziar Komunitatea), estatu zein toki mailako GKEak eta Nafarroako gizarte eta enplegu zerbitzuak ordezkatzeko dituzte.

Foru Komunitatea aitzindaria da zerbitzu horien koordinazioari dagokionez, bi sistemen arteko koordinazioaren errefortzua nabarmentzen duten Europaren gomendioei jarraiki. EaSI ekimen europarrak kofinantzatu eta jardunbide egokitzat jotzen den ERSISI nafar proiektua giltzarrizko osagaia da baterako prestazio eredu berri honen diseinuan.

Administrazio publikoen eta gizarteratze aktiboaren aldeko erakundeen arteko lankidetzak egituratzea da Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak eta UAFSEK batera bultzatu eta Europako Gizarte Funtsak kofinantzaturiko [Gizarteratze Sarearen](#) helburua, esparru honetako jardunbide egokiak trukatzeko gain.